

Foru Aldundiak landa-eremuetako negozioetan eta zerbitzu profesionaletan kontsumitzeko bonuen programa onartu du

Araba Market ekimenaren barruan kokatzen da

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 15a. Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio 5.000 biztanletik beherako Arabako gunetan eta landa-eremuetako negozio eta zerbitzu profesionaletan zuzeneko kontsumoa sustatzeko bonuen programaren deialdiari.

COVID-19k sortutako osasun-krisiak geldialdi bat eragin du jarduera ekonomikoan, eta horrek jarduera koordinatua eskatzen du krisi sanitario, ekonomiko eta sozial horren ondorioei aurre egiteko. Landa-eremuetako denda eta zerbitzu txikietan eragin handia izaten ari da; izan ere, fakturazioaren zati handi bat galdu dute, udalerrien arteko mugikortasuna murriztu egin delako.

Erronka demografikoaren zuzendaritzak kontsumorako pizgarrien programa bat bultzatu nahi du, landa-eremuetako negozio eta zerbitzu profesionaletarako kontsumo-bonuak merkaturatuz.

Ekimen hori Araba Market plataformaren bidez gauzatuko da. Plataforma hori helbide honek Arabako Lurralde Historikoko landa-ingurunearen sustapen ekonomikorako diseinatutako interneteko tresna da, eta datozen egunetan aurkeztuko da.

Martiodako dorrearen ondoan dauden baserriak zaharberritzeko kontratua esleitu da

Foru jabetzakoak dira, eta esku hartzea Zapata Bio SLUk egingo du, 200.756,49 euroan

Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du foru jabetzakoak diren eta Martiodan dauden baserrien harrizko fabrikak, barne egitura eta estalkia finkatzeko lanak egiteko obra kontratua esleitzea Zapata Bio SLUri, 200.756,49 euroko zenbatekoan (BEZa barne) eta gauzatzeko 8 hilabeteko epearekin.

Foru Aldundiak EIT eraikin horietan egindako ikuskapen teknikoaren ondoriozko obren testuinguruan, foru jabetzako bi baserri horiek finkatzea erabaki du. Gertu daudenez, ondare interes argiko multzoa osatuko dute, Hurtado de Mendozatarren dorrearekin batera.

Baserriak dorrearen hegoaldetik 100 metro eskasetara daude (erreferentziazko elementutzat jotzen da) eta zaharberritze lana 41 x 14 metroko laukizuzen baten pareko forma poligonala duen oinplanoko eraikinean egingo da. Guztira, 1.112 metroko azaleran esku hartuko da, eta haietatik 825 izango dira erabilgarriak beheko solairua eta lehenengoa kontuan hartuta.

Esku hartzearen helburua da fatxadetako harrizko hormak, eraikinaren egitura eta estalkiak finkatzea, ahalik eta elementu nagusi gehien kontserbatzeko eta material tradizionalak mantentzeko (harria, egurra eta adobe). Obren iraupena zortzi hilabetekoa izango da.

Gobernu Kontseiluak abeltzaintzako aseguruak kontratatzeko laguntzak onartu ditu

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Arabako Lurralde Historikoko abeltzaintzako ustiatzei laguntzeko laguntzen 2021eko deialdia, ustiatzeien osasun-arriskuak estaltzen dituzten abeltzaintzako aseguruak kontratatzeko.

60.000 euroko diru-laguntza lerro bat da, eta abeltzaintza-sektoreko osasun-arazoei konponbide integrala eman nahi die. Laguntza horiek komenigarritzat jo dira osasun-hutsaren eta lortu gabeko irabaziaren ondoriozko galerak bereziki estaliko dituzten aseguru-polizak kontratatzeko.

Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, % 65era arteko ehunekoa aplikatuko zaio arrisku sanitarioak estaltzen dituzten eta Agroseguruekin izenpetutako polizen zatiari.

Poliza horiek, besteak beste, honako hauek estaltzen dituzte: behi-aziendaren oinarrizko bermeak estaltzen dituzten aseguru-lineetan kontrol ofizialaren xede diren gaixotasunak, abeltzaintzako saneamendu-kanpainen eragindako arriskuak barne hartzen dituztenak, saneamendu estrako behi-aziendaren berme gehigarriak, udako eta neguko larreak galtzeko behi-aziendaren berme gehigarriak eta salmonellen arriskuak estaltzen dituzten hegazti-ustiatzeien oinarrizko bermeak.

Diruz lagundu ahal izango dira 2020ko ekainaren 1etik 2021eko maiatzaren 31ra bitartean izenpetutako polizak.

Aldundiak 20.000 biztanletik beherako udalerrietan udalerrri barruko garraioa finantzatzeko laguntzak jarri ditu abian

Gobernu Kontseiluak Araban udalerrri barruko garraioa finantzatzeko laguntzak lehen aldiz martxan jartzea onartu du. 20.000 biztanletik beherako udalerrri bereko herriguneen arteko garraioa hobetu nahi du diru-laguntza lerro horrek, eta 60.000 euroko aurrekontua izango du.

Arabako udalerrri batzuen errealitatea da herriguneak urrun daudela. Udalerrri bereko gune horien arteko mugikortasuna hobetze aldera, Lurralde Oreka Sailak laguntza bat jarri du abian, eta, espero duenez, laguntza hori baliagarria izango da udalerrri barruko garraio publikoko zerbitzua ematea erabakitzen duten edo ematen duten udalei laguntzeko.